



## Musikaren abantailak zahartzean Ventajas de la música al envejecer

Entrada gratuita hasta completar el aforo.

**ANTZOKI ZAHARRA**

Maiatzak 28 Mayo 2025

19:00 horas

Gutxi gorabeherako iraupena 1h30. Duración aproximada



Laguntzaileak · Colaboradores



# Musikaren abantailak zahartzean

Zer da zahartzaroa? Musika zahartzen da?  
Zahartzaroak gure gustu musikalak aldatzen du?  
Ba al dago bizitzarako abestirik?... Erantzunak  
Brain and Music (Garuna eta Musika) ekimenaren  
III. edizioan izango ditugu, lau zatitan banatutako  
ekitaldi batean, non, gure bizitzak markatu  
dituzten abestiak egongo diren:

- Sehaska kantak
- Amodiozko kantuak
- Abesti espiritualak
- Gure ereserkiaak

Horretarako, Jose Felix Martí Masso neurologoa,  
Juanjo Ocon orkestra zuzendaria, Edurne Orma-  
zabal kazetaria eta Gurutziaga Eskola abesbatza  
izango ditugu.



## Ventajas de la música al envejecer

¿Qué es la vejez?, ¿la música envejece?, ¿el  
envejecimiento modifica nuestro gusto musical?  
¿hay canciones para una vida?... las respuestas  
las tendremos en nuestra III Edición de Brain and  
Music (Cerebro y Música), en un acto dividido en  
cuatro partes en las que estarán presentes las  
canciones que han marcado nuestras vidas:

- Las canciones de cuna
- Las canciones de amor
- Las canciones espirituales
- Nuestros himnos

Contaremos para ello con el neurólogo Jose Felix  
Martí Masso, el director de orquesta, Juanjo Ocón,  
la periodista Edurne Ormazabal y el coro Eskola  
Gurutziaga.



## JUAN JOSÉ OCON

Musikaria eta orkestra-zuzendaria, 2000. urtetik Euskal Herriko Gazte Orkestrako (EGO) zuzendaria da eta Donostiarren Musika eta Dantza Eskolako kide da banda zuzendari eta tronpeta irakasle gisa.

Orkestra-jardueran zehar, hainbat disko grabatu ditu zuzendari gisa, baita filmetarako, film laburretarako eta dokumentaletarako soinu-banda ugari ere. Donostiarra Orfeoiarekin maiz kolaboratu du eta hainbat ediziota Donostiarra Musika Hamabostaldia zuzendu du.

Opera, zarzuela eta polifonia arloetan arrakasta izatera eraman duten hainbat abesbatzen zuzendaria, Brain and music honetan Eskola Gurutziagarekin egingo du.

Eskola-Gurutziaga abesbatza 1995ean bi abesbatzen fusioaren emaitza da: La Schola Cantorum de Nuestra Señora del Coro, 1940an sortua, eta Gurutziaga Abesbatza, 1980an sortua.

40 ahots baino gehiagok osatzen dute Eskola-Gurutziaga Abesbatzaren erreperitorioa, zabala da eta euskal musika erlijioso, renacentista, profano eta folklorikotik eta beste kultura batzuetakoetatik hartzen du bere baitan.

Músico y director de orquesta, es director desde el año 2000 de la Joven Orquesta de Euskal Herria (EGO) y forma parte de la Escuela Municipal de Música y Danza de San Sebastián como director de banda y profesor de trompeta.

A lo largo de su actividad orquestal ha grabado diversos discos como director, así como numerosas bandas sonoras para películas, cortometrajes y documentales. Ha colaborado asiduamente con el Orfeón Donostiarra y dirigido en diversas ediciones la Quincena Musical de San Sebastián.

Director de diversos coros, que le han llevado a cosechar éxitos en el campo de la ópera, la zarzuela y la polifonía, en este Brain and music lo hará con Eskola Gurutziaga.

La coral Eskola-Gurutziaga es el resultado de la fusión, en 1995, de dos agrupaciones corales: La Schola Cantorum de Nuestra Señora del Coro, cuya fecha de creación se sitúa en el año 1940, y la Coral Gurutziaga, fundada en 1980.

Compuesta por más de 40 voces, el repertorio de la Coral Eskola-Gurutziaga, es amplio y abarca desde la música religiosa, renacentista, profana y folclórica vasca y de otras culturas.



## JOSE FELIX MARTÍ MASSO

Neurologia-medikua Neurologiako irakasle emeritua da Euskal Herriko Unibertsitatean.

1975ean Nuestra Señora de Aránzazu (egungo Donostia Unibertsitate Ospitalea) Osasun Egoitzako neurologia zerbitzuren sortzailea izan zen, eta 1979an Donostiako Medikuntzako Irakaskuntza Unitatea sortzen lagundu zuen. Neurologia irakasgaiko irakasle izan zen, eta hiru mila mediku ingururi eman zien prestakuntza bere ibilbidean zehar. Ospitale-zerbitzuan hainbat neurologo-belaunaldi trebatu zituen.

Ikerketari dagokionez, aintzatespen asko lortu ditu, eta 2014ko Euskadi Ikerketa Saria nabarmendu behar da. Gainera, bere dedikazioa erabakigarria izan da dibulgazio- eta gizarte-izae-rako ekimenak sortzeko.

Neurologiako Euskal Elkartearren sortzaile eta lehen presidentea izan zen 1988 eta 1992 artean. Gaixotasun neurologikoen oinarrizko ikerketan diharduen Ilundain fundazioaren sortzaile eta lehendakaria. Eta Aubixa fundazioko lehendakaria izan da. Bertan, patronatukide izaten jarraitzen du.

Médico neurólogo es profesor emérito en Neuroología en la Universidad del País Vasco.

Fue el creador en 1975 del servicio de neurología de la Residencia Sanitaria Nuestra Señora de Aránzazu (actual Hospital Universitario Donostia) y en 1979 colaboró en la creación de la Unidad Docente de Medicina de San Sebastián siendo profesor de la asignatura de neurología donde dio formación a unos tres mil médicos a lo largo de su trayectoria y en su servicio hospitalario formó a varias generaciones de neurólogos.

En su vertiente investigadora ha obtenido muchos reconocimientos destacando el Premio Euskadi de Investigación 2014 y su dedicación ha sido determinante para la creación de diferentes iniciativas de carácter divulgativo y social.

Fue fundador y primer presidente de la Sociedad Vasca de Neurología entre 1988 y 1992. Fundador y presidente de la fundación Ilundain dedicada a la investigación básica de enfermedades neurológicas. Y ha sido presidente de la fundación Aubixa en la que continúa siendo patrono.



## EDURNE ORMAZABAL

Filosofía eta Hezkuntza Zientzietan lizentziatura (Psikología adarra) EHUn. Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroaren zuzendari nagusia da, eta Aubixa Fundazioaren patronatukide.

Hogei urte baino gehiagoko esperientzia du irratian eta telebistan, eta bere ibilbide profesionala komunikabideetan garatu da, bai kudeaketaren arloan, bai kazetaritzaren arloan.

Kulturaren arloan espezializatuta dago, eta CANAL+ eta EITB komunikazio-enpresetan lan egin du. Bertan, erantzukizuneko hainbat kargu bete zituen, hala nola GAZTEA irratiko-katearen zuzendaritza, EITBNET eremu digitalaren zuzendaritza eta telebista, irratiko eta arlo digitaleko taldearen zuzendaritza komertziala.

Bi hamarkada baino gehiagoz, lotura estua izan du Donostiako Nazioarteko Zinemaldiarekin, eta harekin lan egiten jarraitzen du.

Licenciada en Filosofía y Ciencias de la Educación (rama Psicología) por la UPV. Es directora general de Tabakalera, Centro Internacional de Cultura Contemporánea, y patrona de Fundación Aubixa.

Con más de veinte años de experiencia en radio y televisión, su carrera profesional en medios de comunicación se ha desarrollado tanto en el ámbito de la gestión como en el más puramente periodístico.

Especializada en el área de la cultura, ha trabajado en empresas de comunicación como CANAL+ y EITB, donde ocupó diversos cargos de responsabilidad, como la dirección de la emisora de radio GAZTEA, la dirección del área digital EITBNET y la dirección comercial del grupo de televisión, radio y área digital.

Durante más de dos décadas ha mantenido una estrecha vinculación con el Festival Internacional de Cine de San Sebastián, con el que sigue colaborando.



Gonbidapenak direnez, ekitaldirako sarrerak Victoria Eugenia Antzokiko edo Antzoki Zaharreko leihatiletan jaso ahal izango dira BAKARRIK

Al tratarse de invitaciones, las entradas para el acto SOLO podrán recogerse en las taquillas del Victoria Eugenia o el Teatro Principal.



Laguntzaileak · Colaboradores

